

Elgoibar - 1255. zenb.
XXX urtea - 2022-09-08



TOKIKOM

BARREN

Herrigintzan bidegile


Felix Etxeberria



Juana Txurruka Osoro

(Pedro Bollar Mendiolarearen alarguna)

2022ko abuztuaren 19an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Felix Etxeberria Larrañaga

"Parapan"

Izan zaretelako gara, garelako izango dira!

Elgoibarko Ezker Abertzalea



Felix Etxeberria Larrañaga

"Parapan"

2022ko irailaren 2an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Sortu zinen, sortu
eta zure, gure bizitza
ondasunez landu.
Orain itzalirik ere,
zure maitasun ihintzak
gure barne-zelaiak
ditu bustiko, piztuko.
Eskerrik asko, aitxa.**



Felix Etxeberria Larrañaga

"Parapan"

2022ko irailaren 2an hil zen, 95 urte zituela.

Etxepeko lankide eta bazkideok ez zaitugu ahaztuko.

ETXEPE Lan bereziak
Grandes
mecanizados



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako en erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Juan Luis Mugertza

Idazlea

Swazilandiako ihien dantza



“Tradizioak aukera ematen dio Ihien dantzan gustuko duen emakumea aukeratzeko Mswati III. erregeari”

1968. arte Swazilandia zuen izena; egun, Eswatini. Afrikako estaturik txikiena da, eta mugakide ditu Hegoafrika eta Mozambike. Monarkia konstituzional motako erregimena du, eta erregea da estatuko burua. 1993tik, erregeak izendatzen ditu legebiltzarreko kide batzuk, hauteskunde itxurak egin arren. %34 swazilandiarrak langabezia dauka, ia %70ek dolar bat baino gutxiago irabazten dute egunean, eta %39 hiesak infektatuta daude. Halarik ere, arazo horiek ez omen dute larritzen afrikar kontinentean monarkia absolutu bakarra duen Mswati III (*Lehoia* ezizenez ere ezaguna) errege poligamoa, ezta hamalau emazteentzat, eta amarentzat erositako hamabost Rolls-Royce eta BMWz betetako hamabi kamioi ordaintzeko erabilitako hamabost milioi eurok ere. Mswati III erregeak bestelako ardurak ditu. Abuztuko azken astean, edo iraileko lehenengoan, Eswatiniko hiriburuan, Mbabanen, ordoki zabal batean, milaka emakume gazte erdi biluzik dantzan aritu bitartean, bere gutziak nork asetuko dituen erabaki behar izateak kezkatzen du, batez ere. Izan ere, tradizioak aukera ematen dio Ihien dantzan (ingelesez, *Reed dance*) gustuko emaztea aukeratzeko. Parte hartutakoak birjinak dira, eta asko umemokoak. Guztiek nazio-bandera kolore biziko arropa jantzita, aihotzak, lastargiak, gerrari eskudoak, eta beraiek batutako hiru lau metroko ihiak eskuetan, abestu, eta titiak begi bistan dituztela, ametsetarako beta hartzen dute. Izan ere, Swazilandia bezalako lurralde batean, askori gerta dakion gauzarik onena erregeak emaztetzat hartzea da, eta bizitzaren gainerako urteak jauregi batean ondo bizitzea. Hori bai, protokoloak esaten du ezkontza egiteko neskatxoa haurdun egon behar dela. Honela erregea neskatxoaren emankortasunaz baliatuko da gero ezkontza begi onez ikusiko duen ala ez erabakitzeko. Hala ere, Mswati III-k ez du erraz izango aitaren kopurua berdintzea, nahiz eta, dagoeneko, hamalau emazte, eta hogeita bost seme-alaba izan. Aitak hirurogeita hamar emakume baino gehiago izan zituen, eta berrehun seme-alaba.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Bandera preziatuaren bila

Igandean lehia bizia ikusiko dugu Donostiako urretan: Kontxako estropadak. Goizeko 11:00etan hasiko da emakumezkoen estropada eta ordubete geroago gizonezkoena. Aurten ere Leire Garate herritarrak Kontxako Banderaren ohorezko txandan parte hartuko du Orioko traineruan.

Pasa den igandean Orio, Arraun Lagunak, Hondarribia eta Donostiarra nabarmendu ziren. Lau talde horiek egin zituzten denbora onenak, eta beraz, igandean ohorezko txandan lehiatuko dira bandera preziatua lortzeko. Egun handia heldu bitartean, oraingoz, Oriok du bandera eskuratzeko aukera gehien.

Berriz ere Donostiako portua kolorez beteko da: horia, berdea, urdina, marroia, txuria, gorria... Zaleen bultzadarik ez zaie faltako. Ikaragarria izango da, ez egin dudarik! Leirek eta gainerako arraunlari guztiek lan handia egin dute denboraldi guztian zehar, eta ziur naiz igande honetan ere dena ematen saiatuko direla. Aupa neskak! Bejondeizuela!

Z.A.

Lur jabeei deia


Karakaten egin nahi duten parke eolikoak eremu zabalei eragingo die modu desberdinetan: eraiki nahi dituzten dorreek, Elosutik Karakaterako errepideak, Azkueko zentralera egingo den ebakuazio sareak... Karakate Bizirik plataformatik harremanetan jarri nahi genuke lur horien zein ingurukoekin jabeekin, gaia lantzeko, dugun informazioa eta kezak partekatu eta elkarren berri izateko. Hori dela eta, eskertuko genuke interesa edo kezka duten lur jabeak gurekin harremanetan jartzea, sare sozialen bidez (Karakate Bizirik Elgoibar facebook, Instagram eta twitter-en) edo karakatebizirikelgoibar@gmail.com helbidera idatziz, zein plataformako kideokin pertsonalki kontaktatuz.

Karakate Bizirik plataforma



Maite Azpiazu Astigarraga

2022ko irailaren 1ean hil zen, 59 urte zituela
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



II.URTEURRENA

Maria Luisa Müller Acorda

2020ko irailaren 9an hil zen, 56 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzean.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044




Zabor edukiontziak gainezka:

"Pedro Migel Urruzuno kaleko zabor edukiontzien inguru guztia hondakinez beteta egoten da. Lotsagarria da espaloi horrek hartzen duen itxura. Edukiontzieta lekua egon arren, jende askok kanpoan lagatzen du zaborra, erosoagoa delako. Alferkeria iruditzen zait niri. Badakit hondakin batzuk ez direla kabitzen edukiontzien ahoan, baina tolestu daitezke barrura sartzeko. Bizikidetzeta eta errespetua behar ditugu".



Argiak egunez ere piztuta egoten dira Lerunen:

"Energia aurreztu behar dugula esaten digute behin eta berriro agintariek. Norbanokooi jartzen dizkigute neurriak, prezioa izugarri garestitzen digute eta gero honelakoak ikusten ditugu. Eraikin publikoetan argia edonoiz, autopistako gune batzuetan milaka farola bata bestearen ondoan, eta gurean egunez ere farolak piztuta egoten dira askotan Lerun inguruan. Horrelakoak garesti irteten dira, gero eta garestiago; beraz, har ditzagun neurriak denok".



Herriko hainbat haur-parke berritu dituzte:

"Oporretatik bueltan berrituta aurkitu ditugu Giza Eskubideen plazako eta Mintxetako haur-parkeak. Umeek pozik hartu dituzte berrikuntzak eta gustura ibili dira".



Aldatu diote izena Pedro Mugurutza Etorbideari, eta aurrerantzean, Toletxe Kalea izango da

Elgoibarko Udaleko Bizikidetzak Batzordeak bultzatutako partaidetza-prozesu baten bidez erabaki zuten Pedro Mugurutza Etorbidearen izen berria. Herritarrek boto bidez aukeratu zuten Toletxe Kalea izena ipintzea. 447 lagunek egin zuten izen horren alde, eta bigarren lekuan geratu zen Martxoaren 8a izena, 144 botorekin. Urte hasieran egin zuten prozesua, eta zutail amaieran aldatu zituzten kaleko plakak.



WhatsApp bidezko komunikazio kanala jarri du martxan Udalak herritarrekin harreman zuzena izateko

Herritarrei informazioa emateko asmoz, Elgoibarko Udalak WhatsApp bidezko komunikazio-kanala sortu du, eta urri hasierarako jarriko du martxan. Informazio-kanal horretan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da herritarrek beren telefonozenbakia udaletxera helaraztea, etxe guztietara bidaliko den eskuorria betez edota www.elgoibar.eus webgunean sortu duten galdetegia bitartez. Udal informazioa

"hedapen zerrenda" lan tresnaren bidez helaraziko du Udalak. Zerbitzu berri honen helburua Udalaren eta elgoibartarren arteko komunikazioa hobetzea da. Bertan, udal jardueren berri emango dute: udal albisteak, agenda, bandoak, alertak edo larrialdi abisuak. Udaletik argitu dute, baina, kanala norabide bakarrekoa izango dela eta ez duela balioko bizilagunen kexei edo iradokizunei erantzuteko, ezta deiei erantzuteko ere.

Pintxo lehiaketan izena emateko gonbidapena egin die Udalak herriko ostalariei

Urriaren 19tik 21era bitartean izango da aurtengo pintxo lehiaketa, eta dagoeneko izena emateko epea zabalik dago. Elgoibarko Udalak lehiaketan parte hartzeko gonbitea luzatu die ostalariei, eta lehiaketaren oinarriak ere argitaratu ditu. Pintxoak originala izan beharko du, eta establezimendu bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu ahal izango du. Osagaiak eta pintxoaren prestatzeko modua libreak izango dira, baina 1,60 euroan saldu beharko dute. Epaimahai teknikoak emango du pintxo onenaren saria, eta irabazleak 300 euro jasoko ditu Txankakuaren establezimenduetan gastatzeko. Bigarren sarituarentzat 150 eurokoa izango da saria. Herritarrek ere izango dute pintxo gustukoena aukeratzeko aukera botoen bidez, eta irabazleak garaikurra eta txapela jasoko ditu. Interesatuak irailaren 12ra arteko epea dute izena emateko, eta sari banaketa hilaren 26an izango da.

Sallobenteko jaietako errifak badu irabazlea



Sallobente Elkarteak egin du errifaren zozketa, eta dagoeneko entregatu dute saria. 6601 zenbakia izan da irabazlea. Igor Gorroñok eta Aitor Goikoetxeak erosi zuten errifa erdibana, eta biek jaso zuten saria, Itziar Aranberriren eskutik.


Viktoriano Etxabe izango da aurrerantzean Elgoibarko parrokoa



San Bartolome Egunean meza berezia egin zuten Elgoibarko parrokan, Iruñeko Artzapezpiku Francisco Perezek gidatuta, eta meza hura baliatu zuten Elgoibarko parroko berria aurkezteko: Viktoriano Etxabe Aginagalde (Itziar, 1963) izango da Benantzio Otaegiren ordezkoa. 2019tik Arrasateko parrokoa izan da Etxabe. 1963an jaio zen Itziarren, baina jaioberria zela Zestoara joan ziren bizitzera, amaren baserrira. Bost nebarreben artean zaharrena da. Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen, eta Antropologian lizentziatua ere bada. 2004ko abenduaren 26an egin zen apaiz, eta 2005eko urtarrilaren 1ean eman zuen lehenengo meza Beasaingo parrokan. Hondarribiko parrokoa izan zen ondoren, eta handik iritsi zen Arrasatera. Urte asko bizi izan da atzerrian laiko moduan, eta ingelesa, frantsesa eta alemaniera hitz egiten ditu, euskara eta gaztelaniaz gain.

Meza amaieran Elgoibarren eginiko lana eskertu zion Otaegiri parrokiako elkarteak, eta, besteak beste telebista bat oparitu zioten. Elgoibarko Udalaren izenean oroigarri bat ere oparitu zion Ane Beitia alkateak. Begoña Mugertzak berba egin zuen parrokiako elkartearen izenean, "Apaiz ona izan da, baina batez ere gizon ona. Gure konfiantza irabazten jakin du", esan zuen Mugertzak. Otaegik 78 urte ditu, eta azkenaldian osasunez pattal samar ibili dela-eta, Elgoibarko parroko lana lagatzeko ordua iritsi zaiola erabaki zuen joan den urtarrilean. Benantzio Otaegik parroko izateari laga zionetik bailarako lau apaiz eta Madrildik hilean behin etortzen zen Jose Cruz Igartua apaiz elgoibartarra aritu dira mezak ematen Elgoibarren, eta horiei ere eskerrak eman zizkieten parrokiako elkartearen bueltako lagunek.

Irailaren 26an hasiko da berriro 'Egunean Behin' jokia



Irailaren 26an itzuliko da Egunean Behin, "sorpresa parearekin". Hala jakinarazi du CodeSyntax enpresak berak, sare sozialetan. Gogoratu Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak taldea sortua duela 'Egunean Behin' aplikazioan aritzeko. Nahi duenak E26E82 giltza erabilita sartu ahal izango du taldean. Aplikazioaren izenak dioen bezala, egunean behin bakarrik erantzun daitezke galderak eta astez aste eguneratzen dute sailkapena, behintzat orain artekoan.

King-Kong pareko zubiak ez daukala arriskurik jakinarazi dute Udaletik

King-Kong pareko zubiaren itxurarekin kezkatuta agertu dira herritarrek oporretatik itzultzean. Lehenengo aldapa amaitzen den unean arrakala handi bat dauka, eta horren azpian errefortzurako jarri duten estruktura ikus daiteke. BARRENEK galdetuta, Udaletik esan dute zubiak ez daukala arriskurik. Azaldu dutenez, joan den maiatzean kata batzuk egin zituzten zubia zein egoeratan zegoen ezagutzeko, eta emaitza horietan oinarrituta egin dituzte zutabe hori egonkortzeko lanak. Hala ere, lasaitasun mezua zabaldu dute Udaletik.

Udalak hasita dauka dagoeneko zubia berritzeko prozesua, eta une honetan proiektua idazten ari dira. Injelan S.L. enpresak eskuratu zuen lan hori, eta sei hilabeteko epea du proiektua idazteko. Ondo bidean, abendurako jasoko du Udalak proiektuaren proposamena, eta gero, proiektua gauzatzeko aukerak aztertuko dituzte. 2023an lanean hasi nahi du Udalak.



Elgoibarko dantzariak Zarauzko aurreku txapelketan hartu dute parte



Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko lau dantzariak Zarauzko aurreku txapelketan hartu zuten parte joan zen asteburuan: Jon Etxeberriak, Maddalen Oñederrak, Eneko Etxanizek eta Markel Goenagak. Arduradunek esandakoaren arabera, gazte hauek uda osoa eman dute txapelketa hau prestatzeko lanean eta "maila oso onean" jardun dira. Lau dantzaritik hiru lehenengo zazpi postuen barruan sailkatu dira, eta Eneko Etxanizen bigarren postua nabarmendu dute bereziki. Hurrengo dantza txapelketa Hondarribin jokatu dute azaroaren 12an.

FELIX ETXEBERRIA 'PARAPAN' HIL DA, EUSKALGINTZAN BIDE URRATZAILE IZAN DENA

✍ Ainara Argoitia 📖 Debegesa / Asier Orbea

Elgoibarko euskalgintzan eta herrigintzan zubigile eta bidegileetako bat izan dena hil zen barikuan, 95 urte zituela: Felix Etxeberria Larrañaga 'Parapan'. Euskaltzale amorratua izateaz gain, ekintzaile saiaturia eta langile nekazina ere izan da Parapan, eta egindakoaren aitortzentzat Gure Balioak saria jaso zuen 2017an, gizarte balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo entitatea saritzeko Debegesak urtero banatu ohi duen saria. Haren talentua, kemena eta falta zena sortzeko ausardia eta indarra nabarmendu izan dituzte konplize izan zutenek, bai eta haren izaera kritikoa edo oker uste zituenak zuzentzeko grina ere. Akuilua izan zen Etxeberria, eta horixe eraman zuen izenburura Xabier Lasa kazetariak, haren biografia-liburuan. Astelehenean egin zioten azken-agurra, Elgoibarko San Bartolome parrokian.

Zapatuan, *Euskara ala ez* jardunaldian 80 bat euskaltzale kirolak eta euskarak duten harremana aztertzen ari ginela iritsi zitzaigun Felix Etxeberriaren heriotzaren berri. 60ko hamarkadatik Elgoibar euskalduna izateko konpromisoari eta militantziari emana bizi izan zena hil zen, euskara eta euskal kultura suspertzeko gure egitekoan erreferente izan dugunetako bat. Alde eta alderdi gehiago ere izan zituen Etxeberriaren bizitzak, hala ere. Ezer ez zegoen leku askotan egin zuen lan eta arrastoa laga zuen denetan. Hainbestearainokoa, zaila dela haren izatea eta *curriculum*a motzeari ematea, baina Parapanek berak bere buruaz nabarmendu ohi zuena izan daiteke beharbada laburpenik egokiena: "Egin dudan guztia euskararen eta euskaltasunaren alde egin dut beti".



Sallobente-Ermuaran auzoko Parapan baserrian jaio zen Felix Etxeberria, 1926an, eta ez zuen eskola handirik jasotzerik izan. Hala ere, baserriak irakaspen on asko eman zizkiola esan izan zuen beti: lanerako prestutasuna, auzolanerako konpromisoa, lurrarekiko -herriarekiko- lotura eta arbasoengandik jasotako ondasuna zaintzeko eta defendatzeko ardura, besteak beste. "Bertako izatearen sentimendua" baserriari zor ziola aipatzen zuen. Eguzkia irteten denetik erretiratzeko den arteko lana izan da beti baserrikoa, adin kontuez ulertzen ez duena, eta ez zuen umetan eskolarako aukera handirik izan. Etxetik kanpora lanean hastea, baina, oso gazte zela iritsi zitzaion Etxeberriari. 14 urterekin hasi zen peoi, eta Orbea, Sigma eta Jarbe lantegietan jardun zen lanean gero. 27 urterekin, Jarbe lantegian ari zela, Danobat kooperatibaren sorrera-prozesuan jardun zen eragile lanetan.

Aitzindaria izan zen Danobat enpresa kooperatibismoan, baina baita euskararen aldeko ekimenak abiarazten ere, eta horretan buru-belarri aritu zen Parapan, Danobateko langile zela. Gero, lokal bat errentan hartu eta Etxepe sortu zuen 1973an, Felix Arrizabalaga, Carmelo Bilbao



Felix Etxeberria, Korrikaren lekukoa hartuta 2017an.

eta Peli eta Xabier Uriguen anaiekin. Eta elkarteko sortze-hitzarmenean jaso zituzten printzipioetan euskaraz bitzea eta ahal zen neurrian Euskal Herria euskalduntzen laguntzea zehaztu zituzten, dirua irabazteaz gainera. Euskalgintzako egungo leloak dioen moduan, euskararen alde, egin, egiten zuen Parapanek, egotetik harago. Etxepen, esaterako, kanpotik iristen zitzaizkien gutunak, batez ere Administrazioetik zetozenak, bueltan bidaltzen zituzten, *Euskaraz zergatik ez zigilua jarrita*. Ausarta izan zen -ziren-.

1962an, berriz, Frankismo bete-betean, Elgoibarko Ikastola sortu zutenen taldean izan zen eta inguruko herrietan ere ibili zen hazi hori erein nahian. Domeketan, kotxea hartu eta ikastoletarako irakasle bila ibili izan zen. Alegalak ziren orduan ikastolak, eta makina bat estuasun izan zituzten, baina aurrera egin zu(t)en. Ikastola sortzeaz batera, itsu-itsuan beren umeak ikastolara bidali zituzten gurasoetako bi izan ziren Felix Etxeberria eta Loli Canales emaztea, herrian azpiegituren eta legearen aldetik ikastolak baino babes handiagoa eta baliabide hobeak zituzten ikastetxeak baziren garaian. Ikastolako lehen promozioiko ikaslea izan zen, hala, Hasier Etxeberria (Elgoibar, 1957-2017) eta hantxe egin zituen 8 urtera arteko ikasketak [Hiru seme-alabetan zaharrena zen Hasier. Gero

izan zituzten Nekane eta Arantxa]. Hain justu ere, semearengan erdal hezkuntzaren eragina nozitzen hasi izanak eta hori eraman ezinak akuilatu zuen Parapan herrian ikastola sortzera [4 urterekin, eskola nazionaletan eskolatu zuten aurrenekoz Hasier, 1961ean]. Apustua izan zen hori, bai eta gerokoa ere. 8 urterekin, Donostiako Santo Tomas lizeora bidali zutelako gurasoek Hasier, ikasketak euskaraz jarrai zitzen.

ELKARRIZKETA ETA KONFIANTZA

Herriaren nahia eta borondatea legeen gaintik daudela sinisten zuen Parapanek eta bazuen ilusio eta borrokarako konpromiso hori kutsatzeko gaitasuna ere, lortu zuelako beste asko ere euskalgintzara eta herrigintzara begira jartzea. Haren inguruan ibilitakoek aitortua da garai hartako euskaltzaleen liderra eta eragilea izan zela Elgoibarren. Elgoibarko Izarra ere sortu zuen 1963an, Jesus Larrañaga eta Sabin Osororekin batera, eta beste zenbait egitasmo ere sortu eta sustatu zituzten, besteak beste, gau-eskola, dantza -eta txistu-eskola, Aubixa aterpetxea, mendi-irteerak... Gau-eskolako lehen urteetan, esate baterako, euskarazko eskolak ere eman zituen, eta *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan ere idatzi izan zuen.

GIZARTE HOBE BATEN ALDE

Euskara eta euskaldunak zapalduta zeuden, ezereztuta gure eskubideak, eta euskal komunitateari zor zitzaion eta zaion berdintasunaren alde egin zuen borroka. Zapalduetik enpatia eta gizarte hobe eta justuago baten alde egiteko konpromiso hori, eta jakina, ekiteko ausardia eta ilusio hori, beste alor batzuetan ere erakutsi zuen. Bazekien, esaterako, zein garrantzitsua den memoria egitea, eta elkartea sortu zutenetik bertatik, kolaboratzaile aktibo izan zen Elgoibarren memoria historikoaren alde lanean diharduen Elgoibar1936 elkartearen. Gerra garaiko kontuak bildu, argitu eta gizarteratzen jardun zen, eta hainbat hobi ere lokalizatu zituzten Elgoibar1936koek, bere laguntzarekin.

36ko Gerra bizi izan zuen Parapanek, oso ume zela, eta gorriak pasa zituzten etxean. Francoren alde egitera behartu zituzten, esaterako, haren osaba Joxe eta anaia Esteban, 25 eta 17 urteko zirela hurrez hurren, eta biak hil ziren gerran. Bera ere izan zen biktima, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzak 2017an jasota laga zuenez. Bi aldiz atxilotu zuten 1970ean, eta bi aldietan, torturen, tratu txarren eta polizien mehatxuen biktima izan zela jaso zuen 2014an Giza Eskubideen Zuzendaritzaren balorazio batzordeak. Burgosko Prozesua hasi zen garaian izan zen, Etxeberriak 44 urte zituela. Hiru eguneko greba orokorrerako deialdia egin zuten abenduaren 3rako, eta deialdi harekin bat egin zuen Etxeberriak. Huraxe izan zuten atxilotzeko arrazoia eta lau orduz torturatu zuten preso hartu zuten estreinako aldian. Egun gutxira berriro atxilotu zuten, grebaren aldeko propaganda zabaltzea, presoek dirua ematea eta Elgoibarren euskara irakastea leporatuta. Aldi horretan ez zuten jo, baina "etengabe" mehatxu egin zioten, eta "aitorpen faltsua" sinatu zuen. Torturapean egindako adierazpen haietan oinarrituta, 15.000 pezetako isuna jarri zioten gerora. Errekurtsoa aurkeztu eta isuna ordaintzeari uko egin zion Etxeberriak, eta modu horretan, kartzelara joatea saihestu ahal izan zuen, baina isuna ez zioten barkatu, harik eta Franco hil zen arte -Amnistia Legea aplikatu zenean ahaztu ahal izan zuen-.

"Eibarren antolatuagoak izan dira ekimen gehienetan, intelektualagoak; Elgoibarren, morroiagoak ginen denak, eta horregatik uste dut eraiki genuela aurretik ikastola"

"Eskolaren falta beti izan dut. Hilaren azkenean kobratu ahal izateko sinatzeak ere sekulako bildurra ematen zidan. Hori bai, kontra egin behar zenean, edozeini egiten nion kontra; intelektualei ere bai"

"Beti gustatu izan zait mendiak ematen duen askatasuna. Mendian aske sentitzen ginen, ez genituen behintzat guardia zibilak atzetik izaten, eta euskal esentzia gordetzeko bidea topatu genuen han"

"Ikastolako umeekin sarri joaten ginen Sargoatera eta Idotorbera. Umeentzat gauzarik politena eta garrantzitsuena da gustuko duten horretan euskaraz bizi daitezkeela erakustea"

"Ez dakit, baina arriskua neurtzen behintzat ez dut jakin. Sekula ez dut atzera egin"

"ETAn ez nintzen sekula sartu, eskaintza egin zidaten arren. Euskararen bidetik jarraitzea erabaki nuen"

Parapango akuilua liburuaren harira, BARRENEK egindako elkarrizketatik.



Felix Etxebarriaren arrastoa Elgoibarren

Euskalgintzan, enpresa munduan eta herrigintzan oro har lorratz handia laga du Felix Etxebarria Larrañagak. Ekintza-gizona izan da, eta makina bat proiekturen sortze-prozesuan parte hartu du, eragile lanetan. Ondorengo orrialde hauetarako testigantza eske, proiektu edo talde horietarako batzuetara jo dugu, eta eskertzekoa da jaso dugun erantzuna, ez delako sekula lan erraza izan hori, eta are gutxiago, egun batetik bestera egiteko eskatzen denean.

■ Elgoibar1936

Agur Felix, eskerrik asko!

2007. urtean elkartu ginen zurekin, mendietan zeuden gudari eta milizianoen gorputzak non zeuden zenekiela-eta... Hortik aurrera zenbat aldiz elkartu ginen ez dakigu! Ehunka bilera eta elkarrizketa egin genituen. Elgoibarko fosak lokalizatu eta markatu zenituen, Felix, sekulako lana hartuz. Ez zen lan erraza; gainera, jendeak ez zuen gaia entzutzerik ere nahi, ezta erakundeek ere! 'Bakean dagoena, bakean utzi' esaten ziguten. Lurren jabeak ere ez ziren oso gogotsu agertzen, baina azkenean lortu zenuen guztiak markatzea. 2007ko abenduan, Madarixara joan ginen Juan Mari Aranbarriekin batera, aitzurrak eskuan hartuta, Oiartzungo taldekoekin. Aitzurrean hasi eta konturatu ginen ezinezkoa izango zela hori dena zulatzea, karobia zegoelako bertan. Eskabadora hartu eta laupabost

metroko zuloa egin genuen, hondeamakinaren palak gorpuzkinak aurkitu zituen arte.

Gerora, lan handia izan genuen aurretik. Zenbat elkarrizketa egin genituen, Felix! 2012an, Zirardamendiko hobiak atera genituen argitara. Ordura arte inork gutxik mugitu nahi zuena mugitu genuen eta sekulakoa izan zen gero etorri zen erantzuna. Frankismoaren biktimentzako omenaldiak ere antolatu genituen, kolunbarioa, liburua... Zenbat datu, zenbat istorio mingarri, eta zenbat lan. Elgoibarko memoriari egin diozun ekarpena izugarria izan da, zu gabe ezinezkoa izango zena, baina baita Elgoibarko herriari beste arloetan egindako ekarpena ere; Euskara, Ikastola klandestinoak, kooperatibak, lasterketak... Felix, herriarentzat langile nekazina.

Eskerrik asko guztiagatik, Felix!

■ Andres Alberdi ('Felix Etxebarria. Parapango akuilua' libururako idatzitako aitzinsolasetik hartua)

Zubigile eta bidegile

1973an ezagutu zuen Andres Alberdi euskaltzainak Felix Etxebarria *Parapan*, urteetan "gogaide estimatua" izan duena, eta Felix ekintzaileari eta gizonari zion "begiramenetik" idatzi zuen *Parapango akuilua* libururako aitzinsolasa 2014an, Xabier Lasa kazetariaren enkarguz. Liburuan, kontaezinak dira Felixen bizitzako eta jarduera-ekintzetako datu, pasadizo eta gertatuak. Memoria eta dokumentazio "miragarria" dago bertan, "Elgoibarko euskalgintzaren historia oso bat osatzerainokoa", eta gogoetak ere gainezka daude, Felix ez delako izan ekintza-gizona soilik. "Bada barrenagoko

bestelako bizipen eta gogamenik ere; erraz antzematen dira borrokalari baten ezaugarriak. kezka kontentagaitza, hobetu behar etengabea, eredu ederragoen ametsa, askatasunaren egarria...!". Felixek "alditan polemikarako izan zuen isuri eta gaitasunari" erreferentzia ere egiten dio Alberdik, aitzinsolasean. Parapanez dio ez zela sekula izan ezkutuan ibili ohi direnetakoa eta gauzak argi eta garbi adierazten zituela, "indar, ahalmen eta zalutasun handiz". Euskalgintzan, "debekuz eta oztopoz" betetako garaiak egokitu zitzaizkiola azpimarratzen du Alberdik, eta orduan eta gerora, ezer izan bada, "zubigile eta bidegile"

izan dela Felix Etxeberria Elgoibarren, "beste zenbaitzuekin batera". Herritar konprometitu haietaz dio zenbait buruberoren ametsetan baino ez zegoen Elgoibar eta Euskal Herria ameskeria

izatetik errealitate pozgarri izatera eraman zutela urteetan aurrera, eta hala, "sitsak jo eta herdoilak jan ezin duen ondasuna" gorde digutela: "Herri baten arnasa, gure herriaren arnasa"

■ Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea

Zuei esker gara!

Zuei esker gara, eta zuei esker gaude gauden goieran. Oraindik asko falta zaigu amestutako goerara heltzeko, baina zuengatik izan ez balitz dezente urrutiago egongo ginatkeen.

Jesus Larrañaga joan zen hirurotatik lehena, Sabin Osoro gero, eta orain zuk esan diguzu agur, Felix. Joan zarete, baina ez zaituztegu ahaztuko. Eta, batez ere, ez dugu ahaztuko zuek hirurok sortu zenutela Elgoibarko Izarra 1963ko martxoan. Zuen esanetan, orduan esnatu zen lozorrotik elgoibartarron euskaltzaletasuna. Kanean euskararik apenas entzuten zen garaian; egiten zen apurra etxe barruetan baino egiten ez zenean. Zerbait egin behar zela erabaki zenuten: euskarari merezi eta behar zuen lekua egiteko, batetik, eta urtebete lehenago sortu zenuten ikastolari laguntzeko, bestetik. Berehala konturatu zineten elkarteak estimazio handia izango zuela. Bi urtean 1.400 bazkide bildu zineten Elgoibarko Izarraren bueltan.

Dirurik gabe, legeak kontra zenituztela, muturreko bat baino gehiago hartuta, euskalgintzari lotutako ezagutza handirik gabe... Baina asmatu zenuten aurrera egiten. Ondo egiten. Herritarren babesa zeneukaten, elgoibartarren euskaldun izateko nahia, eta hori zen zuek aurrera egiteko behar zenuten erregaia.

Eskerrik asko, Felix. Eskerrik asko gure herriarengatik hainbeste egin eta eragiteagatik. Zoazen tokira zoazela zain izango dituzu Jesus, Sabin eta zuekin batera Elgoibarko Izarran euskalgintzan jardun zuten dozenaka bazkide eta euskaltzale. Eman goraintziak denei gure partetik. Zu ezagututa, laster antolatuko duzu bileraren bat, eta elkarri txanda hartu ezinik ikusten zaituztegu orduko kontuen gainean berbetan. Zer eta zelan egiten zenuten elkarri kontatzen. Pozik eta harro, zuen onena eskaini zenietelako Elgoibar herri euskaldunagoa izateko herri-ahaleginari. Kasu egingo dizuegu egunen batean ametsa betetzea lortzen badugu.

■ AEK euskaltegiko irakasleak

Eskerrik asko, Felix

Kaixo, Felix:

Gaur atzera begira jarri behar izan dugu, zu joan egin zara-eta. Atzera begirako horretan, zu gogoan izanda, kontu asko dira aipagai, baina gure arloari lotuta, alfabetatze-euskalduntzeari, batez ere, AEK-k antolatzen duen Korrika da guretzat ekimen kuttuna, izan ere, azken bi edizioetan izan ezik, beste guztietan parte hartu duzu.

Hasierako edizioetan antolaketan ere jardun ei zenuen, askok Korrika eta AEK maite ez zituzten garaietan; akordatzen zara, Felix? Eskerrik asko.

Aurrerago, AEK indartuta, zuk beste era batean parte hartzen zenuen, esaterako kilometroa eskuratuta.

Guk oso gogoan daukagu Korrika bakoitza zetorrenean, zu, Jose eta Javier zelan etortzen zineten guregana informazio bila, ea noiz pasatuko zen, zer ordutan... jakin nahian eta zuek prest zeundetela adieraztera, eta horietako baten oroigarri da AEK euskaltegian, bulegoan, daukagun zuen argazki ederra; zenbat aldiz begiratu izan diozun, ezta, Felix?

Gainera, 8. edizioan, AEK euskaltegikook, hirurori, omenaldia egitea erabaki genuen. 1995. urtean izan zen, *Denok maite dugu gure herria euskaraz* izan zen orduko leloa, zuretzat egokiagoa ezin izan, ezta, Felix?

11. edizioan, Korrikak, besteak beste, Etxepe

enpresa omendu zuen, euskararen inguruan egindako eta egiten ziharduen lanagatik; gogoratzen duzu, Felix?

2017ko martxoan, zuen Hasier hil berrian ere eraman zenuen lekukoa, senideekin batera, zeure martxan, baina Felix Korrikan ikusita guri oilo-

larrua jarri zitzaigun! Demasa izan zara, Felix; ezta, Loli?

Loli, gu Felix joan delako jarri gara atzera begira, baina zuk aurrera begiratu behar duzu, hortxe izango dituzu-eta Nekane eta Arantxa.

Zuri,Felix,adiorik ez!

■ Danobat

Industria ere eraldatzen

Badira 68 urte Danobat sortu zutela (1954an). Sorrerak ez dira errazak izaten eta pertsona batzuen lanari eta fedeari esker egiten dute aurrera proiektuek. Danobat horren adibide argia da.

1953. urtean enpresen funtzionatzeko eredia aldatzeko asmoz hainbat bilera egin zituzten Elgoibarko langile batzuek. Langileen autonomia zaindu eta gizartearekin ardura izango zuen enpresa bat sortu nahi zuten, eta hori eraldaketa izugarria zen, bai enpresagintzan eta baita gizartean ere. Hau dena, orain ezaguna den Mondragongo esperientzia kooperatiboari aurrea hartuta egin izanak oraindik eta balio handiagoa ematen die berritzaile eta eraldatzaile haiei.

Hurrengo urtean, 1954an, Danobat errealitate bihurtu zuten 24 bazkide fundatzailek, tartean Felix Etxeberriak, sortzaileen 1. zenbakiarekin. Gero, Eguzki eta Acme-Deva enpresekin batuta oraingo Danobat sortu zuten.

Gizartearekiko konpromisoaren adibide garbiak

izan ziren, besteak beste, Ikastola berria egiteko eman ziren lurrak edo makina erremintaren lehenengo Euskarazko Hiztegia; azken hori euskara industrian sartzeko pauso bat gehiago izan zen, oraindik lortu gabe dagoen normalizaziorako bidean.

Garai hartan zeuden gabeziak eta urritasun ekonomikoak kontuan izanda, honelako proiektu bat abian ipintzeko, pertsonak oso garbi izan behar zituzten zeintzuk ziren nabarmendu beharreko balioak diruaren gaitetik, eta hori izan da Danobat desberdindu duena.

Hazi hartan oinarritu da oraingo fruitua. Eta fruitu horretatik elgoibartar eta inguruko herritar askok jan dugu ondorengo urteetan, orain Danobat den horretan bihurtu arte.

Eskerrik asko lehenengo harri garrantzitsu hura ipintzeagatik eta atzetik etorri garenoi bide zehatza erakusteagatik.

Urte askotarako izan dadila eta ez dadila izpiritu hura galdu.

■ **Xabier Lasa** (Kazetaria. 'Felix Etxeberria. Parapango akuilua' liburuaren egilea)

Pertsonalitate harrigarria

Ez nago ziur zer gehiago erantsi dezakedan Felixen gainean, ikusita sarean dagoela heriotza jakin eta oso gutxira BARREN aldizkariak bere ibilbideari buruz egin zuen errepasso zehatza.

Andoaingoa izaki, bihotzeko kontuek eraman ninduten Etxeberria Canales familia ezagutzera, orain bi hamarkadatik gora. Eta agudo egin nuen topo izaera atsegineko eta begiratu zein jokabide nobleko aitagarrebarekin.

Familiako hitz-aspertuetan, tarteka ateratzen ziren iraganeko erreferentziak (gau eskolak, Ongarri, Elgoibarko Izarra, Danobat, Etxepe, frankistek derrigor erreklutatu eta hildako Esteban anaia...),

eta halaxe otu zitzaigun guztia nolabait jasota geratzeko ideia. Egitasmoa, gozagarria gertatu zen guztiz, Felixek zeukan oroimen entziklopedikoari, gertakizunak kontatzeko erraztasunari eta pazientziari esker batik bat.

Elgoibarko XX. mendearen zati handi baten historia soziala eta kulturala markatu dituzten ekimen kolektiboak -diktadura batentzat desafiatazaileak zirenak-, joan zitzaizkidan deskribatzen egunez egun. Modu apalean beti, eta paparra atera gabe, egunerokotasuneko ekintzarik normal eta arruntenak balira bezala kontatu ere, nahiz eta egiazki, Elgoibarko gizartean arrasto

sakonak utziko zituzten ekimenak izan.

Zerk arraiok egin ote zion bultzaz bere bizitzan, Felixi? Osagai ugari eta sendoak pilatu ziren pertsona bakarrean: Euskal Herriarekiko eta euskararekiko maitasuna, injustiziak ezin-eramana, ekintza-zaletasuna, bihotz-beratasuna, burugogorkeria... Jakina, bide emankorrean, ezinbesteko izan zituen etxeko Lolita, Hasier, Nekane eta Arantzaren konplizitatea.

Kazetari eta memoria historiko antifrankistako ekintzaile gisa derrigor egokitu izan zait ezagutzea makina bat pertsona, zein baino zein ibilbide miresgarriagoaren jabe. Baina Felixen parekorik, ez alajaina!

Oso-osoa aldiaren behin jaiotzen diren bide urratzaile eta ekintzaile horietakoa izan da Felix, eta bera gertutik ezagutu dugunok, benetan pribilegiatuak senti gaitzeko.

■ Etxepe

Sorreratik euskaraz

Ekintzailea zen Felix. Eta beste ekimen askoren sorreran bezala, Etxepe sortzeko ezinbesteko bultzatzailea izan zen. Berak proposatu zien beste hiru bazkideei mekanizazio enpresa bat sortzeko ideia. Garbi zuen etorkizuna izan zezakeela.

Baina ez hori bakarrik, Etxepe sortzeko lehen ideiatik, garbi izan zuen Felixek zein hizkuntzatan lan egin nahi zuen. Etxepen euskaraz egin behar zen lan, euskaraz sortu behar ziren dokumentuak eta kanporako harremanak ere euskaraz izan behar ziren ahal zen neurrian. Ez dakitenei ezin zaie eskatu, baina Administrazioetik idatziren bat

gaztelania hutsez baletor ere, bueltan joango zen "Zergatik ez euskaraz" zigiluarekin. Gainera, enpresaren emaitzak arrakastatsuak zirenean, euskararen erabilera bultzatzeko laguntza ekonomiko bat emango zuen.

Orain dela urte batzuk, euskara planagatik eta nola erabilera bultzatu galdetu zigitenean, gure erantzuna erraza izan zen. Ez dugu euskara planik edo antzekorik behar izan, sorreratik euskaraz lan egiteko erabakia hartu zuten Etxepeko bazkideek eta hala jarraitu dugu ondorengo langileok.

■ Elgoibar ikastola

Felix Etxeberria 'Parapan'

Felix Etxeberria *Parapan* joan zaigu. Euskal kulturaren maitale sutua. Elgoibar Ikastolaren sortzailea. Ikastolen sorrerako historian bere lekua daukana. Ekintza-gizon handia, Elgoibar ikastolarentzat ez ezik, Gipuzkoako ikastolentzat erreferentea. Felix Elgoibarko San Bartolome Ikastolako guraso sortzailea izan zen. Pako Juaristik alfabetatze gau-eskola jarri ostean, Ongarriekin nahikoa ez, eta Loritoneko lokala bono-sistema bidez erosi ondoren euskarazko gau-eskolak ematen hantxe hasitakoa. Kartillarik gabeko maisua. Egunez ere aprobeixatu nahi, eta ordurako Donostian eta Hernani inguruan hasita zegoen *ikastola* hitzak erakarrit, modu aintzindariari Elgoibar Ikastola martxan jarritakoa bertan. Ikastolaren 50. urteurrenerako atera zen liburuxkan aipatzen duen moduan, guardia zibilen koartela ere horregatik bisitaturikoa. *Hantxe euki ninduten behin*

galdezka, ez dakit ze, eta badakit ze, ta ahuspez ipini ta hanka azpizetan eman ta eman, baten bateri eman bihar kastigua eta niri tokau... baiña beldurrik ezta batere. Gizon aparta. Gure historia. Guardia Zibilek Loritoneko lokala itxi ostean, San Bartolome Ikastola posible egin zuena elizaren atean jo eta laguntza eskatuz. Dena klandestinoiki egiten zen garai bateko semea. Euskalgintzan, debekuz eta oztopoz beteriko garaiak bizitzera egokitu zitzaion arren, zubigilea eta bidegilea izaten jakin zuena. Ikastola utzitakoan, modu batera zein bestera beti presente, era batera edo bestera laguntzeko prest izan duguna. Bere jaioleku eta baserri hura bezala, ikastola ere inoiz gogotik alden du gabea zeukan. Parapango akuilua. Izen bereko liburuaren hitzaurrean Andres Alberdik aipatzen duen modura, jakingo al dugu haien uberari segitzen!

Donostiako zinemaldiaren 70. edizioaren bezperan hasiko da Elgoibarren Iñaki Agirre zikloaren IV. edizioa

✍ Leire Urkidi

Nazioarteko zinemaldietan ikusitako film arrakastatsuenen artean egindako aukeraketa prestatu du Ongarrik. Ferit Karahan zuzendari kurdoaren *Brother's keeper* (*Mi mejor amigo*) filmak hasiko du zikloa. Horrez gain, Amerikako Estatu Batuetako bi film (*Mass* eta *Red rocket*) eta Frantziako film bat, *Les Olympiades* (Paris, distrito 13), ikusteko aukera izango dugu irailaren 15etik aurrera.

Donostian, bestalde, Zinemaldiaren 70. edizioko Donostia sariak Juliette Binoche eta David Cronenberg zuzendariak jasoko dituzte. Glenn Close izango da Sail Ofizialeko

epaimahaiaren zuzendaria eta Penelope Cruzek Zinematografia saria jasoko du. Horiez gain, Diane Kruger, Liam Neeson eta Ricardo Darin aktoreak, besteak beste, Donostian izango direla baieztatu dute. Bi urteko murrizketen ondoren alfonbra gorria jendez beteko da Donostiara datozen izarrak ikusi eta autografoak eskatzeko. Aurtengo programazioan guztira 17 euskal ekoizpen aurkeztuko dira. Fermin Aioik zuzendutako *Kepa Junkera berpiztu* dokumentala eta Fermin Muguruzaren *Black is beltza II: Ainhoa* estreinatuko dira, besteak beste.



'Mi mejor amigo'



Yusuf eta Memo, bere lagunik onena, gazte kurduentzako barnetegi bateko ikasleak dira Anatoliako mendietan. Memo ondoezik sentituko da eta Yusufek, lagundu ahal izateko, eskolako oztopo burokratikoari aurre egin beharko die.

Ferit Karahan zuzendariak barnetegi batean ikasi zuen eta haurtzaroko oroitzapenei heldu die film honetan. Haur kurdu gisa Turkian haztearen esperientzia traumatikoa izan du oinarri bere bigarren filmean. Fipresci saria eskuratu zuen Berlingalen eta ordutik ibilbide luzea izan du hainbat zinemalditan.

- Irailak 15, eguena, 21:00etan.
- Irailak 16, barikua, 19:00etan.
- Iraupena: 85'
- Zuzendaria: Ferit Karahan.

'Mass'

Zorigaitz deskribaezin baten ondorioz bitzta suntsituta geratu eta urte batzuetara, lau lagunek bilera bat adostu eta hitz egitea erabakiko dute, aurrera egiten saiatzeko. Iaz Donostiako Zinemaldiko New Directors sailak aukeraturiko

lanetariko bat izan zen. Sundance zinema-jaialdian estreinaturiko filmak, Gazteriaren Saria jaso zuen Donostian. Fran Kranz aktore estatubatuarrak, zuzendari eta gidoilari gisa egindako lehen lana da.

- Irailak 17, zapatua, 19:00etan eta 22:15etan, jatorrizko bertsioan.
- Irailak 18, domeka, 19:00etan.
- Irailak 21, astelehena, 21:00etan.
- Iraupena: 110'
- Zuzendaria: Fran Kranz.

'París, distrito 13'

Parisko Les Olympiades auzora garamatza zuri beltzean errodaturiko filmak. Emilie, Camille, Nora eta Amberre, hiru neska eta mutil bat dira protagonistak eta haien harremanetan murgilduko gaitu filmak. Jacques Audiard

zuzendari frantsesak, maitasunari, sexuari eta egonkortasunari buruzko gogoeta egin du hainbat belaunaldiren ikuspuntutik.

Zuzendariak filma Cannesen aurkeztu zuen eta Sevillako jaialdiak ere hartu zuen, besteak beste.

- Irailak 22, eguena, 21:00etan.
- Irailak 23, barikua, 19:00etan.
- Iraupena: 105'
- Zuzendaria: Jacques Audiard.

'Red rocket'

Mikey Saber, gain behera egin duen porno-izarra, bere jaioterrira itzuliko da, Texaseko hiri txiki batera, baina han inork ez du berriz ikusi nahi. Horrek zailtasunak ekarriko dizkio bitzta berria hasteko unean. Filma Donostiako zinemaldiko Perlak sailean ikusgai izan zen

iaz. Perlak sailean, nazioarteko zinemaldietan arrakasta izandako lanak ikusteko aukera izaten da, eta Sean Baker zuzendariak Cannesen aurkeztutako lana hala iritsi zen Donostiara.

- Irailak 24, zapatua, 19:00etan eta 22:15etan, jatorrizko bertsioan.
- Irailak 25, domeka, 19:00etan.
- Irailak 26, astelehena, 21:00etan.
- Iraupena: 130'
- Zuzendaria: Sean Baker.

El Drogas Elgoibarrera etorriko da azaroan

Datozen lau hilabeteetarako kultur gida ezagutzera eman du Elgoibarko Udalak, eta beste hainbat ekitaldiren artean jakinarazi du El Drogasek kontzertua emango duela azaroan, Elgoibarren. Barricada taldearen 40. urteurreneko bira egiten ari da El Drogas, eta azaroaren 25ean iritsiko da Herriko Antzokira. Era berean, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaletak osatzen duten Bikustik taldeak ere kontzertua emango du Herriko Antzokian, urriaren 28an.

Musikaz gain, umeentzako zein helduentzako antzerkiak ere programatu dituzte. Urriaren 21ean, esaterako, *Sexberdinak* antzezlan taularatuko dute Telmo Iruetak eta Aitziber Garmendiak. Azaroan, berriz, *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlan ekarriko dute Kamikaz kolektiboak eta Ttak teatroak, eta abenduan, berriz, *Rebelión en la granja* antzerkia taularatuko du Bilboko Alopargo Teatroak. Talde



honetan Aitor Guisasola aktore elgoibartarrak ere parte hartzen du.

Umeentzako saioen artean, *Munduari bira 80 egunean* izango da urrian, eta *Piztu*, azaroan.

Zinea ere ez da faltako. Datorren astean hasiko da, esaterako, Iñaki Agirre Zinemaldia. Ongarrik antolatuta, lau film emango dituzte, irailaren 15etik 26ra bitartean.

Bota literak! gazteen idazle klubean izena emateko epea zabalik dago



Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak 'Bota literak!' idazle gazteen kluba sortu zuen iaz, Jasone Osoro idazlearekin elkarlanean, eta aurten ere martxan jartzeko asmoa dute. LH6tik gorako ikasleei zuzendutako ekimena da, eta helburu didaktikoa dauka. Oro har, idaztea eta irakurtzea gustuko dutenentzako saio praktikoak eskaintzen dituzte. Saioak bariku arratsaldetan izango dira, 17:00etatik 18:00etara. Interesatuak irailaren 19ra arte dute izena emateko epea. 943 744 366 telefonora deituta edo euskara@elgoibar.eus helbidera idatzita eman daiteke izena.

Irailaren 22ra arte eman daiteke izena bertso eskolan

Elgoibarko Bertso Eskolak ikasturte berria hasiko du irailean. 8 eta 16 urte arteko gaztetxoentzako saioak izango dira, astean behin, Aita Agirre eraikinean. Interesatuak irailaren 22ra arte dute izena emateko aukera, 943 744 366 telefonora deituta edo euskara@elgoibar.eus helbidera idatzita.

Urriaren 6ra arte bidali daitezke 2023ko egutegirako argazkiak

Martxan da Elgoibarko Udalak eta Ongarri Argazki Taldeak antolatuta 2023ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa. Aurten ez dute gairik eman, eta 2022an zehar Elgoibarren ateratako edozein argazki aurkeztu daiteke. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek hartu dezakete parte. Interesatuak urriaren 6ra arteko epea dute argazkiak aurkezteko. Informazio gehiagorako 943 744 366 telefonora deitu edo euskara@elgoibar.eus helbidera idatzi daiteke.

Kirolaren eta euskararen Elgoibarko argazkia egin dute 'Euskara ala Ezkara' jardunaldian

Kirolak eta euskarak duten harremanaren erretratua osatu zuten zapatuan 'Euskara ala ezkara kirolean?' jardunaldian. Ramon Mujika Elgoibarko Kirol Patronatuko zuzendariak eta Kristina Zuatzubizkar Euskara teknikariak herriko kirolaren mapa eta euskararen egoeraren irudia marraztu zituzten, datuekin lagunduta, eta datu horien interpretazioa egin zuen gero Jone Miren Hernandez Garcia EHUko Gizarte antropologiako irakasleak. Iñaki Ugarteburu Bergarako Kirol Patronatuko zuzendariak, berriz, kirola eta herrigintza izan zituen hizpide. Ondoren, kirola hizkuntzaren normalkuntzarako zein bitarteko eraginkorra den erakusteko bi adibide aurkeztu zituzten eta elitako kirolariek mahai-ingurua egin zuten gero. Odei Jainaga xabalina jaurtitzaila, June Loidi eskubaloi jokalaria, Iraia Iparragirre futbolari eta Realeko kapitaina eta Jokin Altuna pilotaria izan ziren gonbidatuak, eta Joxe Mari Apaolaza Euskadi Irratiko esatariak zuzendu zuen mahai-ingurua.

Ekitaldia amaitzeko, kirolean, -sarri itzalean-, lan handia egin duten sei emakume omendu zituzten antolatzaileek. Virginia Santamarta



(Morkaiko Mendizale Elkarteak), Marta Diez (C.D. Elgoibar), Marga Zapata (Urnobitza Motokluba), Mertxe Ariznabarreta (Lagunak pilota taldea), Pili Pedrosa (Sanlo eskubaloi kluba) eta Mertxe Martinez (Mintxeta Atletismo Taldea).

Elgoibarko Izarrak eta Udaleko Kirola eta Euskara sailek antolatu dute jardunaldia, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren babesarekin, eta 70 bat lagunek hartu dute parte.

Jardunaldiaren laburpen osoagoa irailaren 16ko zenbakian jasoko duzue.

Kirol argazkien erakusketa jarriko dute kiroldegian, irailaren 30era arte



Kirol argazkien lehiaketako erretratuak ikusgai daude Olaizaga kiroldegian, irailaren 30era arte. 18 lagunek hartu dute parte aurtengo lehiaketan, eta 55 argazki aurkeztu dituzte guztira. Aritz Gordo arrasatearrak eskuratu du lehen saria, eta Iago Manoel Souto galiziarrek jaso du bigarren saria. Elgoibartarren astean Clara Mejias Barrio izan da irabazlea.

Artalde taldeko artisauen lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Kafean, irailaren 16tik 30era

Artalde Elgoibarko Artisauen Elkarteko zenbait kidek euren lanak jarriko dituzte ikusgai Aita Agirreko Kultur Kafean. Ehunak, xaboiak, bitxiak eta bestelako hainbat artelan ikusteko aukera izango da, beraz, irailaren 16tik 30era bitartean. Taberna zabalik dagoen bitartean bisitatu ahal izango da erakusketa.

Gipuzkoako eta Nafarroako bederatzi eskubaloi talde lehiatuko dira Gojko Vucinic txapelketan

Gojko Vucinic Elgoibar Hiria eskubaloi txapelketaren laugarren edizioa izango dena aurkeztu du Sanlo eskubaloi taldeak. Kadete mailako Gipuzkoako eta Nafarroako bederatzi kirol taldetako hamasei eskubaloi talde arituko dira lehian, irailaren 9tik 11ra bitartean, Olaizaga eta IMH kiroldegietan. Taldeek harrobiarekin egiten duten lana bistaratzea da txapelketa honen helburuetako bat, eta nesken zein mutilen taldeek hartzen dute parte. Olaizaga kiroldegiko kantxan lehiatuko dira nesken taldeak, eta IMHkoan mutilenak. Barikuan, irailaren 9an, 18:30etik 20:00etara bitartean jokatuko dituzte partidak. Zapatuan 9:00etan, 11:00etan eta 12:30ean; eta, arratsaldean, 16:00etan, 17:30ean eta 19:00etan. Domekan, hilak 11, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidak jokatuko dituzte, 9:00etan eta 10:15etan, eta finalak, 11:30ean eta 12:45etan izango dira, Olaizaga kiroldegiko kantxan.



Familian lehiatzeko aukera ere izango da Debabarreneko orientazio raidean

Morkaikoren Raid Taldeak irailaren 17rako antolatu du Debabarreneko VI. Orientazio Raida. Aurten Deban jokatuko dute, 2019an egin zuten bezala. Raidak bi proba izango ditu: abentura eta familia raida. Familia raida bi eta bost pertsona arteko taldetan jokatuko dute (horietatik bat, gutxienez, adinez nagusikoa). Raida orientazio proba bat da, eta helburua mapa batean markatutako puntu gehienetatik pasatzea da, probak irauten duen bitartean. Dena dela, bakoitzaren ahalmenaren arabera proba moldatzeko aukera egongo da. Antolatzaileek mapak banatuko dizkiete parte-

hartzaileei proba hasi aurretik. "Mapa horietan hainbat leku egongo dira adierazita eta parte-hartzaileek leku horietara iristen saiatu beharko dute, nahi duten ordenean eta nahi duten bidetik. Markatutako leku bakoitzak puntu bat edo gehiago eman ditzake, eta helburua da ahalik eta puntu gehien batzea. Proba oinez edo korrika txikian egin ahal da. Tartean, joko eta proba bereziak egongo dira, besteak beste, *Pictionary*, eskorga jokoak, *slackline*, edo mendi bizikletako saioa", azaldu dute. Zortzi kilometroko ibilbidea osatu beharko dute bi ordu eta erdiko epean.

Jose Luis Larrañagak irabazi du Udaberri Xake Txapelketa

Txapelketa irabazteko bi faborito nagusiak zirenak heldu ziren Udaberri Xake Txapelketako finalera: Jose Luis Larrañaga eta Markel Kerexeta. Txapelketan jokatuak hamalau partidetatik bakarra galdu eta gainerakoak irabazita ailegatu zen Larrañaga finalera, eta beste horrenbeste esan daiteke Kerexetaz. Hamabi partida irabazi, bat berdindu eta beste bat galduta sailkatu zen finalerako. Finala bi partidetar Jokatu zuten Mintxeta tabernan, 15 minutura. Lehenengoan tablak egin zituzten eta bigarrenean Larrañagak irabazi zuen.



"18 urte egin baino lehen 200 kiloko harria jaso nahi dut, gutxik lortu dutelako"



IMANOL ROYO "LARTAIN" / Harri-jasotzailea

✍️ / 📷 Asier Orbea

Zortzi harri-jasotzaile lehiatu ziren Baserritarren Egunean jokatu zuten Mintxeta Memoriala: sanbartolomeetako harri-jasotze txapelketan. Mintxeta (124,6 kilo) eta Belaustegi (145,4 kilo) harri irregularrekin jokatu zuten txapelketa, eta Jokin Eizmendik irabazi zuen, 30 altxaldi emanda (13 Belaustegi harriarekin eta 17 Mintxetarekin). Izetak zuen marka berdindu zuen. Orriotara, baina, parte-hartzaile gazteena ekarri dugu, Imanol Royo "Lartain" (Zarauzt, 2004), lotura berezia baitu Elgoibarrekin.

Zarauztarra izan arren, lotura berezia duzu Elgoibarrekin. Kontaguzu.

Bai. Amaren partetik ditudan senide guztiak Elgoibarkoak dira. Horregatik berezia izan da Elgoibarko plazan harri jasotzen aritzea. Poza ematen du nire familia ezagutzen dutenen aurrean aritzeak edo nik bistaz bada ere ezagutzen ditudanen aurrean aritzeak.

Zure amak jakinarazi digu ez zarela familiako lehen harri-jasotzailea. Zure birraitona -"Lartain"- ere, harri jasotzen ibili omen zen.

Aitortu behar dut ezer gutxi dakidala birraitona harri-jasotzaileaz, aspaldiko kontuak baitira. Pare bat argazki ikusi ditut bereak, badakit apustu batzuk egin zituela harri jasotzen, baina... kitto!. Betidanik jakin izan dut harri jasotzen ibilitakoa zela, baina oraintsu arte ez dudanez izan bere pausoak jarraitzeko asmorik...

17 urte besterik ez dituzu. Noiztik zabilta harri jasotzen?

Oraintxe beteko da urtebete hasi nintzenetik. Saskibaloian eta judoan ibiltzen nintzen lehen, baina belauneko lesio bategatik laga nituen bi kirol horiek. Momentuz lesio horrek ez dit eragin harria jasotzerakoan, eta ibili ahala gehiago gustatzen ari zait kirol hau. Gure artean daukagun giro onak asko laguntzen du. Horrek ez dauka preziorik. Gainera, esan daiteke Jokin Eizmendi

harri-jasotzaile zarauztarragatik hasi nintzela harri jasotzen. Haren ibilbidea jarraitzen hasi nintzen, egiten zituen txapelketak-eta jarraitzen, eta ezaguna nuenez, ia berarekin saioen batean parte hartu ahal nuen galdetu nion. Eraman ninduen, eta oso gustura aritu nintzenez, nik ere hastea erabaki nuen. Eizmendi izan zen eta da nire erreferentea. Haren bitartez heldu nintzen Joseba Ostolaza Harri Eskolara ere, bera ere eskolako kidea baita.

Nola moldatu zinen Mintxeta eta Belaustegi harri irregularrekin?

Bereziak dira biak. Leunagoa da bata, eta forma arrarodun harria da bestea, baina ahalegin handia eskatzen duten harriak dira biak. Gainera, bost minutuko txandak ez dira motzak. Lehenengoan gogor saiatuz gero, bigarrenko harriarekin egin beharreko lanera ukituta ailegatzen zara. Hamar jasoaldi egin nituen guztira, bi Belaustegi harriari eta zortzi Mintxeta harriari. Jasoaldi gehiago egiteko nahi eta asmoarekin etorri nintzen, baina pozik nago.

Baduzu helbururik edo erronkarik esku artean?

Abenduaren 1ean 18 urte beteko ditut eta egun hori baino lehenago 200 kiloko harria jasotzea gustatuko litzaidake, lagun gutxik altxatu baitute 200 kiloko harria 17 urterekin. Uste dut lau harri jasotzailek bakarrik lortu dutela. Horietako bat gehiago izatea gustatuko litzaidake.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.

Esperientzia daukat

643 278 344

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

652 020 464

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

642 578 943

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

642 577 823

Adinekoak zaintzeko prest nago. Beharrezkoak diren tituluak ditut eta esperientzia daukat. Orduka, etxeko langile moduan edo gauze lan egingo nuke.

697 760 662

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Paperak legez ditut.

624 131 378

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

632 915 336

Neska euskalduna, umeak zaintzeko prest.

695 769 300

Neska euskalduna, arratsaldetan umeak zaintzeko prest.

671 111 737

OSPAKIZUNAK

1960an jaiotako bazkaria, irailaren 24an. 12:30ean Zubi Ondo elkartearen batuko dira, argazkia atera eta mokadutxoak egiteko. 15:00etan Sigman bazkalduko dute. 60 euro sartu behar dira irailaren 10erako: ES71 3035 0007 23 0071138822

Merkatu txikiko iragarkiari bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiari ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ .

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).


Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>administradores</p> <p><i>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas</i> Euzko Eskola Administrazioaren Lurralde Kontakia</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalde de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean, uanean-uneke presidenteak dira eraikinaren mantentze egokiari dagozkion gestioak egiteko arduradunak. Hortaz, komunitateari dagokion dokumentazio guztia urtero-urtero pasatzen da eskuz, presidentea urtero aldatzen dugulako.</p> <p>Azkeneko urteotan, ardura hori betetzea egokitu zaien pertsonetako asko ez dira, baina, eraikinean bizi, eta apenas egin den gestiorik. Orain, batzar bat antolatzen gara eta ez dakigu nork daukan akta-liburua. Jakin nahiko nuke zer egin dezakegun, badirudielako liburua galdu egin dela.</p> <p>Egun presidente karguan dagoenak idatzi bat aurkeztu beharko du Jabetza-erregistroan akta-liburua galdu dela jakinarazteko. Jabetza Horizontalaren Legea aplikatzen zaien komunitate eta azpikomunitateetan legez araututa dago honako hau:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Akta-liburuen eginbideak erabili aurretik egin behar dira. Beraz, ezingo da akta-liburu berri bat zabaldu lehengoa bete dela ziurtatu arte edo berria zergaitik zabalzen den argitu arte. - Eraikina dagoen lekuko Jabetza-erregistratzailearen ardura izango da eginbide horiek egitea. <p>AHOLKUA: Akta-liburua galduz gero, beste berri bat hasi daiteke, baina beti ere presidenteak edota komunitateko idazkariak, aurrez, gertatutakoaren berri komunitateko jabeakide guztiei eman badie eta hala egin duela jasotzen baldin badu notario aurrean edo Jabetza-erregistroan.</p> <p> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Leia**, abuztuaren 24an 2 urte bete zenituelako. Segi gure bizitzak alaitzen, maittia.



Zorionak, **Ekhi**, bihar 5 urte egingo dituzulako! Askoi maite zaitugu. Patxo potolo bat etxekoen eta bereziki, Kiraren partez.



Sara, zorionak, printzesa! Irailaren 13an 6 urte potolo betetzen dituzu! Patxo potolo bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **Maule** eta **Ihart**, 6 eta 13 urte egin dituzuelako. Etxekoen partez.



KONTSULTATEGIA

“ Zer egin aho-hortzak garbitzeko teknika egokia izateko? ”

Gaurko kontsultategian, aho-hortzak garbitzeko teknika egokiaz hitz egingo dugu.

Aho-hortzak behar bezala garbitzeko gakoa teknika egokia erabiltzean dagoela aipatu behar dugu. Hau da, erabiltzen den eskuila mota alde batera utzita, erabiltzen den eskuilatze teknikan jarri behar dugu arreta. Baina zer egin behar da egoki eskuilatzeke?

- ◆ Mugimendu labur eta leunak, hortzoiaren lerroarekin kontu handia izanda
- ◆ Eskuila hortzoiaren gainean 45 graduko angelua osatuz jarri behar da.
- ◆ Mugitu eskuila leunki kanpoko eta barruko gainazalen gainean.
- ◆ Mihia eskuilatu, bakterioak kentzeko.
- ◆ Gutxienez 2 minutu iraun behar du eskuilatzeak, eta arreta berezia jarri behar da iristeko zail dauden hortzetan, molar hortzetan edo azkenhaginetan adibidez.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

Aurrematrikulazio epea zabalik!

Irakasle eta metodologi berriak
Iraila doan izango duzue metodologi berria probatzeko!
Etorri eta informa zaitze!

- Eskolako ingelesaren errefortzua
- Cambridgeko azterketak. LH, DBH eta helduak
- Talde txikiak

667 261 248

IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com



16 BARIKUA

18:30 Argazki erakusketa. Javier Campano argazkilaria ren lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta.

Zinea Iñaki Agirre zinemaldia



'Mi mejor amigo'

15 eguna: 21:00

16 barikua: 19:00

Eta, Debabarrenean zer?

Galbaixoak, Mutrikun

Galbaixoak ospatuko dituzte datorren astean, Mutrikun. Aste barruan izango dira ospakizunak, hasi irailaren 13an, 22:30ean, Anaiarte biltokiak antolatzen duen danborradarekin, eta bukatu, domekan, Galbaixotarren eguneko ospakizunekin. Tartean, irailaren 16an, Piñastei eguna ospatuko dute, portuan, arrantzaleen eguna. Egitarau oparoa antolatu du Mutrikun egunotarako eta Udalaren webgunean duzue ikusgai: mutriku.eus.

Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaitez harpidedun!

Aspaldi bazabiltza
BARREN etxeko buzoian
jaso nahian edo
jaso nahi lukeen beste norbait
ezagutzen baldin baduzu,
oraintxe duzu aukera.
Deitu, idatzi edo
etorri bulegora.

943 744 112

barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ez.



EXPRESS ESKAINTZAK!

SAMSUNG WW90T534DTT/S3 ARROPA-GARBIGAILUA



499 €

- 9 kg-ko karga
- 1.400 b/min
- WIFI
- Autodosifikazioa



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>9 BARIKUA Egunez Garitaonandia</p> <p>Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>10 ZAPATUA Egunez Arriola</p> <p>Iluntzean Arriola</p>	<p>11 DOMEKA Egunez Arriola</p> <p>Iluntzean Arriola</p>	<p>12 ASTELEHENA Egunez ■ Fernandez</p> <p>Iluntzean Yudego</p>
<p>13 MARTITZENA Egunez Yudego</p> <p>Iluntzean Yudego</p>	<p>14 EGUAZTENA Egunez ■ Oruesagasti</p> <p>Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>15 EGUENA Egunez Garitaonandia</p> <p>Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>16 BARIKUA Egunez ■ Ibañez</p> <p>Iluntzean Yudego</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>



Denboraldei berriko manta, edredoi, nordiko eta neguko ohe-maïndireak dendan!


Bisita gaitzazu!




San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com


2023ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

- **GAIA:** LIBREA. ARGAZKIA ELGOIBARREN ATERATAKOA IZAN BEHARKO DA 2022 URTEAN ZEHAR.
- **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.
- **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- **LANAK AURKEZTEKO LEKUA:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:
 a) Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira: "Elgoibarko egutegia 2023" Argazki Lehiaketa. Barruan egilearen datuak jarriko dira. Helbidea: Aita Agirre (Euskara Saila), Aita Agirre plaza 3, 1. solairua.
 b) Emailez, euskara@elgoibar.eus helbidera bidalita (Tel.: 943 744 366).
- **ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA:** 2022ko urriaren 6ra arte.
- **SARIA:** Hamahiru argazki sarituko dira, bakoitzak **80 euroko bonua** jasoko du.
- **LEHIAKETAREN OINARRIAK:** elgoibar.eus





ELGOIBAR
URTEA
1943-2023



ONGARRI

Giro onean joan dira San Antolin jaiak

Barikuan hasi ziren San Antolin jaiak Arriaga auzoan. Goizean meza eta prozesioa egin zituzten, eta arratsaldean, berriz, ohikoak diren txapel eta oliba hezurren jaurtiketa txapelketak egin zituzten. Gizonezkoetan Edu Arronak irabazi zuen txapela 19,80 metrora botata, eta emakumezkoetan Elaia Etxanizek (17,15 metro). Zapatuan, umeentzako jolasak prestatu zituzten lehenengo, eta ondoren, herri kirolen erakustaldia egin zuten. Patata tortilla eta mus txapelketak ere izan ziren, eta ahoak gozatzeko txokolatea banatu zuten antolatzaileek. Errifaren zenbakiak: 1. saria: 0918 (ordezkoa, 4430), 2. saria: 1592 (ordezkoa, 4717). Argazki gehiago: barren.eus



*Hasi duzu bidaia,
denok noizbait egingo duguna,
bizitzak baditu bai,
bere argi eta iluna.*

Iluna, hain goiz joan izana.

Argia, zu ezagutzeak aberastu gaituna.

*Bizitza bizitzeko izan duzun ahalmena,
agur esateko izan duzun kemena.*

*Badakigu tontor garaienetatik
begira egongo zarena.*

*Ez utzi sekula hegan egiteari,
BETI ARTE, LAGUNA!!*

Zure kuadrilla

"Txefe"

2022ko abuztuaren 14an hil zen.



Eustakio Fermin Goñi Garmendia

2022ko abuztuaren 30ean hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

Etxekoak



Eustakio Fermin Goñi Garmendia

2022ko abuztuaren 30ean hil zen, 94 urte zituela.

*Eustakio, gaur zer esan,
hitzik gabe geratzean,
beti izan zaitugu ta,
hor gure aldamenean,
eta hala izango da
beti zutaz oroitzean,
argi txiki bat piztuaz,
gure iluntasunean,
muxu handi bat jaso ta,
segi dezagun bidean.*



Niretzat **Harentzat**

Hiretzat

Para todxs
EUSKARA
GUZTIONTZAT

Guretzat **Zuentzat**

Zuretzat

UDAL EUSKALTEGIAK GUZTIONTZAT. PUBLIKOAK.

2022-2023 Matrikula EPEA ZABALIK

UDAL EUSKALTEGIAK GUZTIONTZAT. PUBLIKOAK.

HADE

2022-2023 Matrikula EPEA ZABALIK

Plano de matrikulazio publiko

MATRIKULA ZABALIK

Matrikulaldia:
irailaren 7tik 23ra

IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
Autoikaskuntza Internet bidez.
Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.
Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.
Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat.
Langabetu, jubilatutako, ikasle eta gurasoek **MATRIKULA ERDIA**.
Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero).

Informa zaitez Udal Euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

ELGOIBAR: Aita Agirre 3, 3.a - 943 742 731

2022-2023

Uzuri **ELGOIBAR - DEBA**
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359
www.uzuroptika.com

Ezinezko gauza bakarra
saiatzen ez zaren hori da

Prest zaude?



Betaurrekoen armazioa eta lente graduatuak
89 eurotik aurrera

LIFE IS NOT SPECTATOR SPORT

Berrueldean hautabuteko modeloenentzat beldu da eskaintza honek, beti ere izakinek amaitu arte edo gogortutako lente organikoekin 1,5 HC cil2 esf+/-4 stock monofokal.

Sustapen-data: 2022ko azaroaren 30a.

Marka Reebok®
REGISTRY

